

#19

06/2025

Lezon

UDAL ALDIZKARIA —
REVISTA MUNICIPAL



DESKARGATU ETA
IRAKURRI ALDIZKARIA
ZURE MUGIKORREAN
DESCARGA Y LEE LA
REVISTA EN TU MÓVIL

3/ Elkar Zainduz Lezo — 6/ Lezo Lezo —

9/ Gaintxurizketako segurtasuna Seguridad de Gaintxurizketa

14/ ETXEBIZITZA PLANA ONARTU DA OSOKO BILKURAN

EL PLAN DE VIVIENDA,
APROBADO EN EL PLENO





GOBERNANTZA IREKIA, ZABALA ETA PARTE HARTZAILEA

Mikel Arruti Salaberria, Lezoko Alkatea

Pozgarria da gure herriarentzat hain beharrezkoak ditugun proiektuak gauzatzen ikustea. Bi proiektu aipatuko ditut, oso ezberdinak baina antzekotasunekin. Bata, Gaintxurizketatik igarotzen den GI-636 errepidea oinez modu seguruan zeharkatzeko lanak: behin-behineko pasabidea ari da eraikitzen Gipuzkoako Foru Aldundia (350.000€) eta oinezkoen bidea Lezoko Udala (117.500€). Bestea, Altamira auzoko urak tratatzeko sistema berria: auzoaren sorreratik, ur zikinak ez dira euri uretatik bereizten eta badiara isurtzen dira. Sistema berria eraiki behar da, ur zikinak araztegira bideratu eta behar bezala tratatzeko, ondoren itsasora isurtzeko. Horretarako, Añarbeko Urak Mankomunitatearekin akordioa sinatu dugu lan horien %62a (889.000€tik 550.000€) bere gain har dezan. Ezberdinak dira: Gaintxurizketakoa begibistakoa da eta egunerokoan aldaketa handia ekarriko digu, Altamirakoa berriz, lur-azpikoa eta ez du gure egunerokoan eragingo. Baina biak dira beharrezkoak, lan eta inbertsio handikoak, udalarentzat zailtasun ekonomiko handiegikoak. Zorionez, beste erakundeekin akordioak lortzen ari gara eta gure herria aurrera doa.

GOBERNANZA ABIERTA, AMPLIA Y PARTICIPATIVA

Es satisfactorio ver cómo se llevan a cabo algunos proyectos tan necesarios para nuestro pueblo. Mencionaré dos proyectos, muy diferentes, pero con similitudes. Por un lado, las obras para cruzar a pie de forma segura la carretera GI-636 a su paso por el barrio de Gaintxurizketa: la Diputación Foral de Gipuzkoa está construyendo la pasarela provisional (350.000 €) y el Ayuntamiento un camino peatonal (117.500 €). Por otro lado, el nuevo sistema para tratar las aguas fecales del barrio de Altamira: desde la creación del barrio, sus aguas residuales se vierten directamente a la bahía, sin separarse de las pluviales. Es necesario construir un sistema para canalizar las aguas sucias a la depuradora y tratarlas como es debido, para después verterlas al mar. Para ello, hemos firmado un acuerdo con la Mancomunidad de Aguas del Añarbe para que asuma el 62% de estos trabajos (de 889.000 € 550.000 €). Son diferentes: el proyecto de Gaintxurizketa es visible y nos traerá un gran cambio en el día a día, el de Altamira es bajo tierra y no nos afectará en la cotidianidad. Pero ambas son necesarias, de mucho trabajo e inversión, de demasiada dificultad económica para el Ayuntamiento. Afortunadamente, estamos llegando a acuerdos con otras entidades y Lezo avanza.

Udal Gobernuarekin harremanetan jartzeko para contactar con el Gobierno Municipal: Asteazkenetan: 16:00-19:00 / Ostiraletan: 9:00-12:00

Gurutze Santuaren Plaza, 1 20100 Lezo _ 943 524 650 _ info@lezo.eus _ www.lezo.eus

@lezoudala

@lezo_udala

@LezoUdala

@LezokoUdala

UDALA GERO ETA MENPEKOAGOA DA KANPO FINANTZAZIOEKIKO

Herritarrei udalaren egoera ekonomikoaren berri ematea egin beharreko gardentsaun ariketa da, hartzen diren erabakiak, garatzen diren proiektuak, eta garatzen ez direnak egokiago ulertu ahal izateko.



Udalaren egoera ekonomikoa aztertzeko garaian, garrantzitsua da bi alderdi nagusi aztertzea, zergak, eta aurrekontuak, hain zuzen.

Udal aurrekontuan azken hamar urteotako azterlana egin dugu, bilakaera hori ezagutu, egungo egoera hobeto ulertu, eta etorkizuneko bilakaera posibleak aurreikusteko. Hori guztia, noski, epe motz eta ertainean egin beharreko Udal baliabideen erabilera ahalik eta egokiena izan dadin.

Eginiko azterlanak utzitako hiru ondorio nagusi azalduko dira jarraian. Ondorio hauek hainbat zehazpen eskatu ditzakete, eta bestelako ideia batzuk ere atera genitzake.

Edozein kasutan, etorkizuneko udal aurrekontuak lantzeko garaian, herritarrek argi eta erraz ulertzeko modukoak diren, eta Udalean aintzat hartu beharreko ondorioak labur-zuhurrean azaltzen saiatu gara.

Zer funtzio betetzen dute zergek?

Alde batetik, herritarren jokabide egokiak erregulatzea. Jokabide desegokiak zergapetu eta jokabide egokiak hobaritzea ahalbidetzen dute.

Bestetik, eta nagusiki, aberastasunaren birbanaketa egitea. Bi bide daude:

- Zuzenekoa, gutxiago dutenei gutxiako kobratzeko hobariak eskainiz.
- Zeharkakoa, herritar guztion eskura egongo diren zerbitzu publikoak eskaini ahal izateko baliabideak eskuratuz.

Zer funtzio betetzen dute aurrekontuek?

Udal baliabideen erabileraren nondik norakoa zehazten dute. Zergen bidez eskuratzen diren baliabideak zertan erabiliko diren, zein zerbitzu, proiektu, inbertsio.... garatuko diren zehazten dute.

Hortaz, udalak dituen asmoak agerian utzi ohi ditu. Halere, asmo horiek udalaren egiturazko gastuen edo gastu finkoen, edota lehendik hartutako konpromisoen muga izango dute. Eta beraz, asmo berrietarako aukerak nahiko mugatuak izan daitezke, kasu askotan.

1. AURREKONTUAREN HAZKUNDE DESOREKATUA, BERROREKATU BEHARRA

Udal aurrekontua 8 miloi euro ingurukoa izatetik 10 miloi euro ingurukoa izatea igaro da. Hazkunde hori, ordea, modu desorekatuan gauzatu da. Gastuak %39 hazi diren bitartean, sarrerak %30 soilik hazi dira. Honek lehen alarma piztuarazi digu. Horrela jarraituz gero, aurrekontuetan galerak izateko arriskua izango baitugu ondorengo urteotan. Beraz, ezinbestekoa da gastuak neurritzea, edota diru sarrerak handitzeko moduak bilatzea.

2. AURREKONTUAREN EGITURAZKO MUGAK


Gastuei dagokionez, langile gastuek eta ondasun arruntek zein zerbitzuek gastu guztien %75-80 hartzen dute. Transferentzia arruntek berriz, aurrekontu osoaren % 15aren bueltan.

Ondoko taulan adierazten den moduan, ondasun arruntan eta zerbitzuen gasuetan, mantenu gastuek, Añarbek, energia elektrikoak eta gasak, eta garbiketa zerbitzuek hartzen dute %50. Transferentzia arruntei erreparatuz gero, Bekoerrota kiroldegia kudeaketak eta Oarsoaldeari egiten zaion ekarpenak hartzen dute %50.

Hasieran aipatu den moduan, nabarmena da aurrekontuaren parte handi bat egiturazko gastuei (gastu arruntei) erantzutera bideratu behar izaten dela, eta beraz, proiektu edota inbertsio berrietarako Udala oso mugatua dagoela.

3. KANPO FINANTZAZIOAREKIKO MENPEKOTASUNA

Sarrerei begiratzan badiugu, udalaren eskumenekoak diren zerga ordenantzek ia ez dute igoerarik izan. Bereziki deigarria da, sarrera nagusietakoa den zuzeneko zergetatik (ondasun higiezinaren gaineko zerga, ibilgailuen gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga...) duela 10 urte baino baliabide gutxiago eskuratzea. Arrazoi garbietako bat, noski, azken urteotan zerga horietan igoerarik ez egitea izan da. Zerga izozteko joera egon den bitartean, KPI azken 10 urteotan %22 igo da



LEZOKO UDALAREN GASTUEN BANAKETA DISTRIBUCIÓN DE LOS GASTOS DEL AYUNTAMIENTO DE LEZO			
ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK GASTOS CORRIENTES Y SERVICIOS	MANTENUA MANTENIMIENTO	432.000 €	% 50
	AÑARBE	452.000 €	
	ENERGIA ELEKTRIKOAK ETA GASAK ENERGÍA ELÉCTRICA Y GASES	481.000 €	
	GARBIKETA ZERBITZUAK SERVICIOS DE LIMPIEZA	894.000 €	
	BESTEAK OTROS		%50
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	KIROLDEGIAREN KUDEAKETA GESTIÓN DEL POLIDEPORTIVO	350.000 €	% 50
	OARSOALDEARI EKARPENA APORTACIÓN A OARSOALDEA	356.000 €	
	BESTEAK OTROS		% 50

Euskal Autonomia Erkidegoan.

Gauzak horrela, transferentzia arruntetatik jasotzen dugu sarreren %50. Nabarmen eta iraunkorki igo den diru sarrera bakarra da. Sarrera horren %85 inguru Foru Fondoak (Foru Aldundiak Udalei bideratzen diren finantzazioak) osatzen du. Eta beraz, esan liteke, kanpoko finantzazio honekiko menpekotasun gero eta handiagoa duela Lezoko Udalak.

Ondorioa argia da beraz, ia soilik kanpo finantzazio duten proiektuak, edo aurreko urteetako

aurrezkien kontura finantzatuak gara ditzake Lezoko Udalak, eta kanpo finantzazioarekiko menpekotasun gero eta handiagoa du.

Bistan denez, ondorio hauek Udala baliabideen kudeaketan zuzentzeko, arduraz eta erantzukizunez jokatzeko eskatzen dute. Are gehiago, azken urteotan ikusten ari garen ezegonkortasun orokorreko testuinguruan. Betiere egoera ahulenean eta zaugarrienean dauden herritarrei behar duten laguntza eta babesa eskaintzea lehenetsiz, eta Lezoko herritarren behar nagusiei erantzuteko ahalegina eginez.

EL AYUNTAMIENTO DE LEZO ES CADA VEZ MÁS DEPENDIENTE DE LAS FINANCIACIONES EXTERNAS

Informar a la ciudadanía de la situación económica del ayuntamiento es un ejercicio de transparencia a realizar, para entender qué decisiones se toman sobre los proyectos que se desarrollan y sobre los que no se desarrollan.

A la hora de analizar la situación económica del Ayuntamiento, es importante analizar dos aspectos fundamentales: los impuestos y los presupuestos.

Se ha realizado un estudio de los últimos diez años de los presupuestos municipales para conocer su evolución, comprender mejor la situación actual y prever posibles evoluciones futuras. Todo ello, por supuesto, para que el uso de los recursos municipales a realizar a corto y medio plazo sea el más adecuado posible. Este estudio ha provisto tres conclusiones principales.

1. INCREMENTO DESEQUILIBRADO DEL PRESUPUESTO, NECESIDAD DE REEQUILIBRIO

El presupuesto municipal ha pasado de rondar los 8 millones de euros a los 10 millones de euros. Sin embargo, este crecimiento se ha materializado de forma desigual. Mientras los gastos han crecido un 39%, los ingresos sólo han crecido un 30%.

Esto ha hecho sonar la primera alarma. De seguir así, correremos el riesgo de sufrir pérdidas presupuestarias en los próximos años. Por lo tanto, es imprescindible moderar los gastos o buscar formas de aumentar los ingresos.

2. LÍMITES ESTRUCTURALES DEL PRESUPUESTO

En cuanto a los gastos, los de personal y los de gastos corrientes y servicios suponen entre el 75 y el 80% del total. Las transferencias corrientes representan alrededor del 15% del presupuesto total.

Tal y como se observa en la tabla, los gastos de mantenimiento, Añarbe, energía eléctrica y gas, y los servicios de limpieza representan el 50% de los gastos. En las

¿Qué función tienen los impuestos?

Por un lado, regular las conductas más adecuadas de la ciudadanía, gravando las conductas inadecuadas y mejorando las conductas adecuadas.

Por otro lado, y principalmente, hacer una redistribución de la riqueza. Para esto hay dos vías:

- La directa, ofreciendo bonificaciones para cobrar menos a las personas que tienen menos.
- La indirecta, disponiendo de recursos para poder ofrecer servicios públicos al alcance de toda la ciudadanía.

¿Qué función tienen los presupuestos?

Determinan el uso de los recursos municipales. En principio, en él se detalla a qué se van a dedicar los recursos que se obtienen a través de los impuestos, que servicios, proyectos, inversiones... se van a desarrollar.

Por tanto, evidencia las intenciones del Ayuntamiento, ya que el presupuesto puede tener ciertas limitaciones estructurales o para dar respuesta estructural ya formadas. Por lo tanto, la necesidad de dar respuesta a esos límites o compromisos, porque ofrece posibilidades bastante limitadas para nuevas intenciones.

transferencias corrientes, la gestión del polideportivo Bekoerrot y la aportación a Oarsoaldea representan el 50%.

Todo ello pone de manifiesto, en la línea apuntada al principio, que una parte importante del presupuesto se destina a gastos estructurales, corrientes, por lo que el Ayuntamiento está muy limitado para nuevos proyectos e inversiones.

3. DEPENDENCIA DE LA FINANCIACIÓN EXTERNA

Si miramos los ingresos, las ordenanzas fiscales que son de nuestra competencia apenas han tenido subida. Es llamativo que de los impuestos directos, que son uno de los principales ingresos (impuesto de bienes inmuebles, impuesto de vehículos, impuesto de actividades económicas...), se obtengan menos recursos que hace 10 años. Una de las razones, claro está, ha sido que en los últimos años no se hayan producido subidas en estos impuestos. Mientras ha habido una tendencia de congelación fiscal, el IPC en la CAV ha subido un 22% en los últimos 10 años.

Así, recibimos el 50% de los ingresos por transferencias corrientes. Es el único in-

greso que ha subido de forma notable y sostenida. Cerca del 85% de este ingreso está constituido por las financiaciones que la Diputación destina a los Ayuntamientos. Por lo tanto, el Ayuntamiento de Lezo es cada vez más dependiente de la financiación externa.

La conclusión es que el Ayuntamiento de Lezo puede desarrollar proyectos con financiación exclusivamente externa, o financiados con ahorros de años anteriores, y tiene una dependencia creciente de la financiación externa.

Evidentemente, estas conclusiones exigen prudencia y responsabilidad en la gestión de los recursos municipales. Más aún, en el contexto de inestabilidad general de los últimos años. Siempre priorizando ofrecer la ayuda y el apoyo que necesita la población más desfavorecida y vulnerable, y haciendo un esfuerzo por dar respuesta a las principales necesidades de la ciudadanía de Lezo.

LEZO BIZIGARRIAGO BAT: HERRIKO HAINBAT PUNTUTAN HOBETZE LANAK EGIN DIRA

'Elkar Zainduz Lezo' legegintzaldiko marka izateaz gain, udal gobernua oinarritzat duen filosofia da. Elkarrekin gure herria zaintzeaz gain, elkar zaintzea ere ezinbestekoa da. Bide horretan ezinbestekoa da herri irisgarriagoa, erosoagoa eta bizigarriagoa egitea. Azken hilabeteetan Lezoko hainbat puntu konpontzeko eta hobetzeko lanak egin dira.



Zubitxo eta Arretxene kaleen bidegurutzea

Bidegurutze honetako pasabidea arriskutsua izan zitekeen mugikortasun urriko edota edozein motatako gorpildun aulkirekin ibiltzen diren pertsonentzat. Zeharkako maldaren inklinazioa handiegia zen irisgarritasun osoa bermatzeko, eta ibilgailuen eta oinezkoen ikusgarritasuna ere ez zen egokia.

Ondorioz, zebra-bidearen segurtasuna bermatzeko lanak egin dituzte hainbat hobekuntza lortzeko: malda leuntzea, oinezkoen ikusgarritasuna hobetzea, ispilu bat jartzea ibilgailuen ikusgarritasuna ere handitzeko eta lanen ondorioz, zeharka beste hobekuntza batzuk lortzeko. Hobekuntza horien artean daude, zeuden piboteak kentzea, euri uren desbideratzea, arketak altxatzea, argiteriko kable berrien kanalizazioa eta trafikoko seinaleak eguneratzea.

LEZO MÁS ACCESIBLE: SE HAN REALIZADO OBRAS DE MEJORA EN VARIOS PUNTOS DEL MUNICIPIO

'Elkar Zainduz Lezo' no sólo es la marca de la legislatura, sino la filosofía en la que se basa el gobierno municipal. No sólo cuidamos nuestro pueblo, sino que también es imprescindible cuidarnos conjuntamente. En este camino es imprescindible hacer un pueblo más accesible, cómodo y habitable. En los últimos meses se han llevado a cabo trabajos de reparación y mejora de varios puntos de Lezo.

Cruce de las calles Zubitxo y Arretxene

El paso podía ser peligroso para personas con movilidad reducida o para las que utilizan sillas de ruedas de cualquier tipo. La inclinación de la pendiente transversal era demasiado elevada para garantizar la total accesibilidad y la visibilidad de los vehículos y peatones tampoco era adecuada.

Por ello, se han realizado obras para conseguir varias mejoras: suavizar la pendiente, mejorar la visibilidad

de peatones, instalar un espejo para mejorar también la visibilidad de los vehículos y conseguir otras mejoras indirectas derivadas de las obras. Entre estas últimas se encuentran la retirada de los pivotes que estaban en ese área, el desvío de aguas pluviales, el levantamiento de arquetas, la canalización de nuevos cables de alumbrado y la actualización de las señales de tráfico.



Bekoerota Kiroldegiko pareta

Denbora da Bekoerota Kiroldegiko pareta printzatu zenetik. Segurtasun arrazoiengatik kaltetutako pareta zatia guztiz eraitsi zuten eta ingurua hesitu, oinezkoen segurtasuna mantentzeko. Dagozkion azterketa lanak egin eta arazoa konpontzeko prozedurak egin ostean, pareta berriro eraiki du Lezoko Udalak.

Hace tiempo se agrietó la pared del Polideportivo Bekoerota. El tramo de pared afectado fue totalmente derribado por motivos de seguridad y la zona que lo rodea fue acordonada para mantener la seguridad de los y las viandantes. Tras realizar los correspondientes trabajos de estudio y procedimientos para solucionar el problema, se ha reconstruido la pared.



Musika Eskolako eskailerak

Eurite handiek eskaileretatik ura sartzea eragiten zuten eta eraikin barruko instalazioetan hezetasuna eta itoginak azaldu ziren. Kaltetutako eremuen erabilera egokia eta egoera ona bermatzeko lanak egin zituzten. Eskailerak eraitsi, azpitik iragazgaizte-sistema berri bat jarri eta berriro mailak eraiki zituzten, kalteak errotik ezabatzeko.

Las intensas lluvias provocaban la entrada de agua por las escalera y aparecieron goteras y humedad en las instalaciones del edificio. Hicieron obras para garantizar el buen estado y uso de las zonas afectadas. Se derribaron las escaleras, instalaron un nuevo sistema de impermeabilización por debajo y volvieron a construir los peldaños para eliminar los daños de raíz.



Karlos Saldise plazako sabaia

Karlos Saldise plazak eskaintzen digun azpiegitura garrantzitsuenetakoa da estalkia. Denboraren poderioz, sabaiaaren narriadura areagotu eta itoginak eta beste kalte batzuk zituen. Hori dela eta, sabaia konpontzeko lanak egin zituzten, ur metaketak ekiditeko eta sabaiaak zituen pitzadurak hobekuntzak egin dituzte.

La cubierta es una de las infraestructuras más importantes que nos ofrece la plaza Karlos Saldise. Con el paso del tiempo, el deterioro del techo aumentaba y presentaba goteras y otros daños. Por ello, se realizaron trabajos de reparación del techo para evitar acumulaciones de agua y en las grietas que presentaba el techo.



Altzateko igogailua

Auzo berriarekin batera, herritarren irisgarritasuna hobetzeko azpiegiturak bermatu ditu Udalak. Altzate Berri eta Lezo elkartzen dituen bidean, igogailu eta eskailera berriak egin dituzte. Orain, bide hori oinez maldatik edo eskaileretatik egin daiteke, bai eta igogailua erabiliz ere.

Junto al nuevo barrio, el Ayuntamiento ha garantizado infraestructuras para mejorar la accesibilidad de la ciudadanía. En el camino que une Alzate Berri con Lezo se han construido nuevas escaleras y un ascensor. Ahora, este camino se puede hacer andando por la pendiente o por las escaleras, así como utilizando el ascensor.

ehbildu

Azkar doa denbora. Mundua, gizartea abiada bizian ari da aldatzen, eta aldiz, gauzek berdin jarraitzen dute. Kontraesankorra izan arren, esandako guztian ados egon gaitezke.

Bi urte dira Udal hauteskundeak izan genituenetik. Beste horrenbeste dugu faltan hurrengoetarako. Momentu zehatz honetan, beraz, garrantzitsua deritzogu atzera begiratzea, aurrera egiteko.

Aldaketak egiten saiatu gara, auzoetara joaten, herritarrei galdetzen, parte hartze foroak zabaltzen, gizarte laguntzak handitzen, errenta mailaren arabera hobariak eskaintzen, etxe hutsak eskuragarri jartzen, azpiegiturak konpontzen... baina ohartzen gara asko dugula oraindik aldatzeko: aparkalekuak, auzo eta azpiegituren egoera, zaintza guztion eskubidea eta ardura izatea...

Eginiko bidea ezinezko litzateke, herritarren eta eragileen hurbiltasunik eta laguntzarik gabe. Ondorengo bi urteotako erronkei erantzuteko ere herritarrak hurbil izango ditugula ziur gaude. Legegintzaldi hasieran esan genuen bezala, herriarekin eta herriarentzat.

El tiempo pasa rápido. El mundo, la sociedad está cambiando a toda velocidad, mientras las cosas siguen igual. Aunque sea contradictorio, podemos estar de acuerdo en todo lo dicho. Hace dos años que se celebraron las elecciones municipales. Otro tanto nos faltaba hasta las siguientes. En este momento concreto, por lo tanto, nos parece importante mirar hacia atrás para avanzar. Hemos intentado hacer cambios: acercarnos a los barrios, preguntar a la ciudadanía, abrir foros de participación, incrementar las ayudas sociales, ofrecer bonificaciones por nivel de renta, poner a disposición viviendas vacías, arreglar infraestructuras... pero nos damos cuenta de que todavía tenemos mucho que cambiar: los aparcamientos, la situación de los barrios y de las infraestructuras, que el cuidado sea el derecho y la responsabilidad de todos y todas... El camino recorrido sería imposible sin la cercanía y el apoyo de la ciudadanía y de los agentes sociales. Estamos seguros y seguras de que tendremos a la ciudadanía cerca también para responder a los retos de los próximos dos años. Como dijimos al principio de la legislatura, con el pueblo y para el pueblo.



EAJ-PNV Lezok udal parkeen hobekuntzan egindako aurrerapen faltagatik kezka agertu du.

EAJ-PNV Lezotik gure kezka adierazi nahi dugu gure udalerriko parkeen hobekuntzaren inguruan EH Bilduk duen gelditasunaren aurrean.

Legealdia aurretik eta behin hau hasita, EH Bilduk publikoki, arlo horiek berritzeko konpromisoa hartu zuen, bere egoera gogor kritikatu eta berehalako ekintzak iragarri.

Bi urte geroago, ez da ia ezer egin. Parke txiki bat baino gehio ez da egokitu, haurtzaindegia ondoan eta bere erabilera oso mugatua du.

Parkeak herritarren bizikidetzarako eta ongizaterako funtsezkoak dira. Kezkagarria da ikustea EH Bildu ez dela gai bere konpromisoak betetzeko. EAJ-PNV Lezotik, elkarlanean aritzeko eta ekarpenak egiteko konpromisoa berresten dugu, elkarlanaren bidez, herri bezala aurrera egin dezagun.

EAJ-PNV Lezo muestra su preocupación por la falta de avances en la mejora de los parques municipales.

Desde EAJ-PNV Lezo queremos trasladar nuestra preocupación ante la inacción de EH Bildu en relación con la mejora de los parques de nuestro municipio. Con anterioridad y una vez iniciada la legislatura, EH Bildu se comprometió públicamente a renovar estas áreas, criticando duramente su estado y anunciando actuaciones inmediatas. Dos años después, la realidad es que apenas se ha actuado. Solo se ha acondicionado un pequeño parque junto a la guardería, cuyo uso además es muy limitado.

Los parques son espacios clave para la convivencia y el bienestar de la ciudadanía. Es preocupante comprobar que EH Bildu no está siendo capaz de ejecutar sus propios compromisos. Desde EAJ-PNV Lezo reiteramos nuestro compromiso a colaborar y aportar para que, a través del trabajo conjunto, podamos avanzar como pueblo.



El PSE-EE quiere destacar tres iniciativas que tienen la impronta y sello socialista.

La primera es la inauguración del último tramo de la vía ciclista-peatonal Lezo-Donibane. Este proyecto, que era una de las grandes demandas de la ciudadanía de Oarsoaldea en general y de Lezo en particular, se convierte ahora en una realidad, completándose así un circuito de movilidad activa en torno a la bahía de Pasaia.

Bidegorria egiteko zailtasun geotekniko eta orografikoetatik haratago, Lezoko Udalaren eta Jose Ignacio Asensio sozialistak zuzenden duen Gipuzkoako Foru Alfundiko Iraunkortasun Departamentuaren arteko lankidetzari esker, lana osatu da. Ahalegin bateratuari esker, oztopo teknikoak gainditu ahal izan dira, azpiegitura segurua, irisgarria eta kalitatezkoa izan dadin Lezoko eta eskualdeko herritarrentzat.


Proiektu horrek Pasaia badiá eraldatu eta biziberrituko du, mugikortasun iraunkorrari dagokionez; izan ere, mugikortasun aktiboa sustatzeaz gain, herritarren osasuna hobetzen ere lagunduko du, eta ingurumenerako onuragarria izango da.

El PSE-EE mantiene su compromiso con la movilidad sostenible y en este sentido, el grupo socialista en Lezo tiene como objetivo trabajar en el proyecto de un bidegorri que una Lezo-Gaintzurizketa, dando servicio a los polígonos industriales y barrios rurales cercanos, tal y como se recoge en el plan urbanístico de Lezo así como en el Plan de Movilidad Sostenible Municipal.

Por otra parte, el PSE-EE ha solicitado también el inicio de la tramitación de una ordenanza municipal contra el ruido con el objetivo de mejorar la calidad de vida de la ciudadanía y garantizar un entorno más saludable en nuestro municipio.

Y por último, hemos solicitado que se cumpla la iniciativa presentada por el PSE-EE para que Lezo sea declarada zona de vivienda tensionada debido a los altos precios del alquiler y la desproporción entre las rentas y el poder adquisitivo de la población.

GAINTXURIZKETAKO SEGURTASUNA BERMATZEKO LANEK AURRERA EGIN DUTE



Aurrera doaz GI-636 errepidea gurutzatzeko behin-behineko pasabidearen lanak. Hortaz gain, pasabideraino Perrene auzotik modu seguruan iristeko bidea egokitzeko lanak ere aurreratu ditu Lezoko Udalak. Gaintxurizketako azken urteetako egoera aldatu eta bizilagunen eta bertan lan egiten duten oinezkoen segurtasuna eta bizi kalitatea hobetzea ahalbidetuko dituzten aurrerapausuak dira.

Gaintxurizketako bizilagunen eta bertako industriaguneko langileen segurtasuna bermatzeko beharra urgentea zen eta Lezoko Udalaren lehentasunen artean kokatzen da arazoari behin betiko konponbidea ematea. Pasa den urrian onartu zen errepide honetako bide-segurtasuna hobetzeko ebazpena Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Xehetasunak zehazteko hainbat bilera egin eta proiektua osatu ostean, behin-betiko irtenbidea iritsi bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin-behineko oinezkoentzako pasabidea eraikitze lanak hasi zituen duela aste batzuk.

Euskotreneko geltokiaren parean eraiki dute oinezkoentzako pasabidea. 14 metroko luzera

eta 5,5 metroko altuera ditu GI-636 errepidea gainetik gurutzatu ahal izateko. 348.247,61 euroko inbertsioa eta ekainean amaitzeko aurreikuspena du.

Horrez gain, Errekalde Hotelaren eta Gure Txokoa etxebizitzaren sarreraren arteko tartean oinezkoentzako ibilbidea prestatu dute. Errepidean tarte horretan dagoen abiadura moteleko erreia kendu eta hormigoizko hesiekin babestuz, oinezkoentzako ibilbidea bihurtu dute.

Bestalde, Lezoko Udalak dagoeneko aurreratu ditu ibilbide horretatik Perrene auzorako doan bidea egokitzeko lanak. 117.500 euroko aurrekontua dute.

Horrela, Euskotreneko geltokitik errepidea gurutzatzeko pasabide seguruia izango da, eta hortik Perrene auzora, zein 107 industriagunera, bizilagun eta langile guztientzat arriskurik gabeko bidea osatuko da. Behin betiko egiturak osatu arte, pasabide honekin mugikortasun seguruia lortuko da.

Gainera, Altamirako tunelaren eta Gaintxurizketako biribilgunearen arteko tartean abiadura 70 km/h-ra mugatu dute eta seinaleztapen bertikala zein horizontala indartuko dute. Balizamendua hobetu eta errepidearen ardatzean lerro jarraitu bikoitza margotuko dute, erreien banaketa hobetzeko.



Lanek iraun bitartean eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, GI-636 errepidean (Irur noranzkoan), txirrindulariek ezin izango dute zirkulatu Lanbarrenerako sarbideko biribilgunetik aurrera.

Aipatu moduan, Lezoko Udalaren esku dago Perrene auzotik pasabideraino oinezkoen bidea egokitzea eta lanak bukatuta daude daudeneko.

Oinezkoek bertan aurretik egindako bidea aztertu eta bideragarritasuna ziurtatu ostean, ibilbide bat egokitu dute. Bide inguruko sastrakak kendu eta garbitu dituzte, bai eta hondeaketa egin ere. Argi indarraren funtzionamendua egokitu eta argipuntuak bai eta eskubanda instalatu dituzte beharrezko eremuetan. Azkenik, lurrak egokitu eta gainean hormigoizko zolata jarri dute.

Orain arte egunero bizi zuten arriskuari behin betiko konponbidea emateko bidean bizilagunen aldarriak ezinbestekoak izan dira, egoeraren larritasuna salatu eta Lezoko Udalarekin elkarlanean aritu dira.



AVANZAN LOS TRABAJOS PARA GARANTIZAR LA SEGURIDAD DE GAINTXURIZKETA

Ya han terminado las obras del paso provisional para cruzar la carretera GI-636. Además, el Ayuntamiento de Lezo ha realizado las obras para acondicionar el acceso seguro desde el barrio de Perrene hasta la pasarela.

La necesidad de garantizar la seguridad de las personas que residen en Gaintxurizketa y trabajan en el polígono industrial era urgente y se sitúa entre las prioridades del Ayuntamiento de Lezo dar una solución definitiva al problema.

El pasado mes de octubre se aprobó en las Juntas Generales de Gipuzkoa una resolución para mejorar la seguridad vial en esta carretera. Tras varias reuniones para concretar los detalles y completar el proyecto, hasta que llegue la solución definitiva, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha realizado obras de construcción de una pasarela peatonal provisional.

El paso peatonal se ha construido frente a la estación de Euskotren. Tiene 14 metros de longitud y 5,5 metros de altura para poder cruzar por encima la carretera GI-636. La inversión es de 348.247,61 euros.

Además, han habilitado un recorrido peatonal en el tramo comprendido entre el Hotel Errekalde y la entrada a la vivienda Gure Txokoa. Eliminando el carril de velocidad lenta que había en este tramo en la carretera y protegiéndolo con vallas de hormigón.

Por otro lado, el Ayuntamiento de Lezo ha realizado las obras para acondicionar el camino que va desde

este recorrido hasta el barrio de Perrene. Estos trabajos tienen un presupuesto de 117.500 euros.

Así, se ha conformado un paso seguro desde la estación de Euskotren para cruzar la carretera y de ahí al barrio de Perrene, así como al polígono 107. Es un camino sin peligro para el vecindario y todas las personas trabajadoras que frecuentan este camino. Hasta completar las estructuras definitivas, con este paso se conseguirá una movilidad segura.

El Ayuntamiento de Lezo ya ha acondicionado el vial peatonal desde el barrio de Perrene hasta la pasarela. Tras analizar el anterior trazado peatonal y asegurar su viabilidad, se ha acondicionado un recorrido. Se ha realizado el desbroce y excavación de la zona del vial. Han adaptado el funcionamiento de la fuerza lumínica y han instalado puntos de luz y pasamanos en las zonas necesarias. Finalmente, se han acondicionado los terrenos para construir una solera de hormigón.

Las reivindicaciones de los vecinos y vecinas han sido imprescindibles para dar una solución definitiva al riesgo que se vivía hasta ahora, han denunciado la gravedad de la situación y han colaborado con el Ayuntamiento de Lezo.



UDAL ETXEBIZITZA PLANA ONARTUTA

Martxoko osoko bilkuran Etxebizitza Plana onartu zuten aho batez. Erabaki honek bi puntu nagusi ditu: bata, hurrengo hiru urteetan udal etxebizitza politika gidatuko duen Ekintza Plana onartzea, bestea, Lezo Tentsio Handiko Bizitegi Eremu izendatzeko eskaera egitea Eusko Jaurlaritzari.

Etxebizitza eskubidea bermatzea ezinbestekoa da bizitza duina izan ahal izateko. Horretarako, Lezoko Udalak Martxoko Osoko bilkuran Etxebizitza Plana onartu zuen. Bost asmo nagusi jasotzen ditu:

1. Babes publikoko etxebizitza parkea handitzea

Etxebizitzen prezioan eragiteko beharrezkoa da etxebizitza eskaintzan eragitea. Horrela, babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzen parkea handitu nahi du Lezoko Udalak. Horretarako, Olatzar eta Isasti eremuetan promozio berriak aurreikusten ditu.

2. Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea

Etxe hutsak alokairu merkatura prezio eskuragarrietan bideratzea sustatzeko eta inolako erabilerarik ematen ez zaien etxe hutsak izatea eragozteko neurria da.

Ondasun Higiezin Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria aplikatuko zaie, Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren barruan, erabilera-lagapena duten etxeei.

Zerga berean, % 100eko errekarua ezarriko zaie etxebizitza hutsei. Identifikatutako 115 etxe hutsen jabeak jakinaren gainean jarri dira.

Birgaitze lanak sustatzeko balizko diru-laguntza lerro espezifikoak edota zerga neurriak aztertuko dira.

3. Zailtasunak dituzten kolektiboei laguntzea

Gazteek edota bazterketa arriskuan dauden pertsonak zailtasun bereziak dituzte etxebizitza lortzeko. Beraz, giza-talde horiei begirako neurri espezifikoak hartzea aurreikusi da. Batetik, gizarte larrialdietarako laguntzetan alokairura bideratutako laguntzen bidez. Eta bestetik, eurentzat eskuragarri dauden laguntza-programetan parte hartzeko informazioa eta aholkularitza eskainiz.

4. Erabilera turistikoko etxebizitzak arautzea eta kontrolatzea

Lezoko udalerrian oraindik gutxi badira ere, aurre hartzea, gaiaren inguruko hausnarketa egitea, eta datozen urteetarako hauek erregulatzeko eman beharreko pausuak zehaztea aurreikusi du Udalak.

5. Erakunde artean koordinatzea eta zerbitzu osagarriak eskaintzea

Lezoko Udalaren eskumenak nahiko mugatuak dira. Horregatik, ezinbestekoa da gainerako administrazioarekin ere koordinatzea.

Bide horretan, eskualdeko etxebizitza bulego integrala martxan jartzea landuko da: etxebizitzak birgaitzeaz, alokairurako laguntzei buruz, etxebizitza hutsak merkaturatzeko... aholkularitza eskaintzeko. Eta, Jaurlaritzak jada martxan dituen programen zein laguntzen berri herriarrien artean zabaltzeko, eurekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea aurreikusi da.

PLAN DE VIVIENDA MUNICIPAL

Garantizar el derecho a la vivienda es imprescindible para poder llevar una vida digna. Para ello, el Ayuntamiento de Lezo aprobó en el Pleno de marzo el Plan de Vivienda: un Plan de Acción para los próximos tres años y, gracias a este plan, solicitar al Gobierno Vasco la declaración de Lezo como Zona Tensionada. Con esta declaración, el Ayuntamiento de Lezo tendrá más competencias para incidir en las políticas de vivienda. El Plan de Acción recoge cinco objetivos principales:

1. Ampliación del parque de vivienda de protección pública

El Ayuntamiento de Lezo pretende ampliar el parque de viviendas de uso residencial de protección pública. Para ello prevé nuevas promociones en las zonas de Olatzar e Isasti.

2. Poner en mercado las viviendas vacías

Es una medida para incentivar que las casas vacías se destinen al mercado de alquiler a precios asequibles y evitar que sean casas vacías sin ningún uso. Recoge una bonificación del 50% de la cuota íntegra del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dentro del programa Bizigune del Gobierno Vasco, a las casas que tengan cesión de uso. Por otro lado, recargo del 100% a las viviendas vacías. Se ha informado a las personas propietarias de las 115 casas deshabitadas identificadas.

3. Apoyo a colectivos en dificultades

El objetivo es dar a conocer los programas de ayudas disponibles o poner a disposición de la ciudadanía las ayudas que ofrece el propio Ayuntamiento, ampliando la información o analizando las ofertas de asesoramiento.

4. Regulación y control de las viviendas para uso turístico

Aunque en Lezo todavía son pocas, el Ayuntamiento tiene previsto adelantarse, reflexionar sobre el tema y definir los pasos a seguir para regularlos en los próximos años.

5. Coordinación interinstitucional y prestación de servicios complementarios

Las competencias del Ayuntamiento de Lezo son bastante limitadas. Por ello, es imprescindible coordinarse también con el resto de la Administración.

Se trabajará la puesta en marcha de una oficina integral de vivienda de la comarca. Se prevé la firma de un convenio de colaboración con el Gobierno Vasco para dar a conocer entre la ciudadanía los programas y ayudas que ya tiene en marcha.

LEZOkO



Antzerki Testu Laburren Lehiaketa



HIK
TEATROA

Izen-emateak
irailaren 10era arte

Finala
urriaren 4an



Lezoko Unibertsitateko Udala

